



<b>EAE Publikako Irakasleak</b> Hezkuntza publikoa indartzeko, lan-baldintzak hobetu!	<b>Lan Legepeko Irakasle eta Hezitzaileak</b> Aldarrikapenak	<b>Haurreskolak Partzuergoa</b> Urteak eman ditugu Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna eskatzen eta azkenean gauzatu da, baina zein preziotan?
<b>Irakaskuntza Pribatuak</b> Lan gatazka amaigabea eta jendarte desberdinkeria sakona	<b>Nafarroa Publikako Irakasleak</b> Kaktus politikak hezkuntzan	<b>UPV/EHU</b> UPV/EHUn zaharrak ez dira berri



03

**EDITORIALA**

04

**ZERBITZU PUBLIKOKO GREBAK**

04

Zerbitzu publikoko grebak

06

**EAE PUBLIKAKO IRAKASLEAK**

06

Hezkuntza publikoa indartzeko, lan-baldintzak hobetu!

07

Urriak 24 eta 25 greba hezkuntza publikoan

08

Udazkena mobilizazioak

09

Aldarrikapenak

10

Adinagatik ordu lektiboen murrizketak jasan dituen murrizketak

12

**LAN LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEAK**

12

Zertan da adinagatik arreta zuzenaren murrizketa bitarteko langileentzat? – Urria, azaroa eta abenduan lan-legepekoak kalera!

13

Aldarrikapenak

14

**UPV/EHU**

14

UPV/EHUn zaharrak ez dira berri

15

EHUko irakasle eta ikertzaileon greba arrakastatsua izan da

18

**HAURRESKOLAK PARTZUERGOA**

18

Urteak eman ditugu Haurreskolak Partzuegoaren doakotasuna eskatzen eta azkenean gauzatu da, baina zein preziotan?

19

Aldarrikapenak

20

**IRAKASKUNTZA PRIBATUAK**

20

Lan gatazka amaigabea eta jendarte desberdinkeria sakona

21

Aldarrikapenak

22

**NAFARROA PUBLIKAKO IRAKASLEAK**

22

Kaktus politikak hezkuntzan

23

**LAN OSASUNA**

23

Haurreskolak Partzuegoan, hezkuntza ez unibertsitarioan eta EHU-n mediku zerbitzua pribatizatu dute

24

**IDAZKARITZA FEMINISTA**

24

Zaintza bizimodu duin baterako oinarria

25

**LGTBIQ+**

25

Udazken gorriari ortzadar kolorea. Gori-gori dator urria, bero-bero udazkena

26

**JENDARTE MUGIMENDUAK**

26

Tapia legeak eta makroproiektu pribatizatzaileek publikoaren gainbehera dakarte! – Su txikien itsasoa

27

**HITZ ETA LAPITZ**



### Udazken gorri honetan borrokatu beharra dugu udaberrian lan-baldintzak loratu daitezen

Publiko egin dugun moduan, hainbat greba egunera deitu dugu datozen hiru hilabeteetan. Funtzio publiko osoan bi greba egunera deitu dugu Euskal Herriko gehiengo sindikalarekin batera. Hori hala da sektoretik harago doan konpromisoa dugulako **STEILAS**en, hau da, zerbitzu publiko guztien defentsan egiten dugulako lan; baita funtzio publikoan zehazten diren aldarrikapenak gure sektorean borrokatu behar ditugulako ere, gurean isla zehatza dute eta. Adibideren bat ematearren, erosahalmena eta erretiroan aldaketak nahi baditugu indarrak batu behar ditugu, Gasteizek entzun gaitzan eta borrokatu ditzan aldarrikapen hauek Madrilan. Horrexegatik, Euskal Herriko gehiengo sindikalarekin batera, gaurtik abendura bitarte bi greba egunera deitu dugu; bata, urriaren 25ean eta bestea, abenduaren 19an.

Jakin badakigu, bi greba egun hauek hezkuntza sektoreko borroka egunak direla eta bertan jasotzen diren aldarrikapenak gure mahai negoziatzaileetan eztabaidagai izango direla, baina ezinbestekoa iruditzen zaigu gure ahotsa indartuko duten sektoreko greba egun espezifikoak deitzea. Hori horrela, unibertsitatean izango dugu greba eguna, urriaren 11n, eta beste greba egun bat irakasle ez-unibertsitario eta hezitzaileen sektorean urriaren 24ean.

Unibertsitatean aspaldi ez da deitu grebara eta langileoi egoera zeharo okertu zaigu. Irakasle ordezkoon errealitatea bereziki jasanezina bilakatu da unibertsitatean. Kontuak hala, ziur gaude langile guztiok bat egingo dugula oraingo honetan gure eskubideen alde eta kaleak beteko ditugula. Unibertsitatetik kanpoko irakasle eta hezitzaileoi dagokionez, Hez-

kuntza Sailak aldebakarreko erabakiak hartzen ditu une oro, behin eta berriz gure lan-baldintzak prekarizatzen dituztenak. Haien esanetan, abendua baino lehen moldaketa hauek guztiak jasoko dituen lan hitzarmen berria jarriko dute mahai gainean irakasle ez-unibertsitarioen sektorean eta hezitzaileen sektorean. Hori dela eta, orain da momentua lan hitzarmenak baldintzatzeko; ez badugu hala egiten, hobekuntzak lortzeko aukera aparta galduko dugu.

Greba egun hauetaz gain, mugimendu feministak bideraturiko grebaren deitzaile era bagara. Ezagun da **STEILAS** sindikatu feminista dela eta greba zehatz honetan erdigunean jarri den zaintzaren aldarria sustuki babesten dugu. Denok menpeko garenez, zaintza lanak egituraturako dituen proposamena behar du gure gizarteak. Gure ustetan, zerbitzu publikoak dira gako nagusia zaintzaren berregituraketa horretan, instituzioek zaintzaren ardura hartu behar dute eta honen kudeaketarako lanpostu duinak sortu. Horrez gain, kontzientziazio prozesu erreala eman behar da jendartean, non denok izango garen zaintzearen eta zainduak izatearen garrantziaren jabe.

Feministok ondo dakigun bezala, eskubideak ez dira iristen, borrokatu egiten dira. Beraz, orain inoiz baino gehiago guri dagokigu kalera ateratzea. Jakin badakigu esfortzu ekonomiko eta pertsonala dakarrela, baina aldi berean argi dugu gure hezkuntza komunitatea kontzientziaduna eta borrokalaria dela.

**Udazken gorri honi eutsita soilik loratu ahalko dugu lan-baldintzez beteriko udaberria. ■**



# ZERBITZU PUBLIKOKO GREBAK

ELA, LAB, CCOO, **STEILAS**, SATSE, eta ESK sindikatuok (ordezkaritza sindikalaren %85tik gora) urriaren 25ean eta abenduaren 19an bi greba egun egitera deitu ditugu EAEko sektore publikoko langile guztiak. Azken urteetan zerbitzu publikoen kalitateak okerrera egin du nabarmen, eta lan-baldintzak okertu egin dira.

Horrek zuzenean eragiten du herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatean, aurrekontu-esleipenarekin eta inbertsio politikekin zuzenean lotuta dagoena:

📍 Hamarkada luze daramagu, eremu **publikoko hitzarmen kolektiboak eta akordio arautzaileak berritu gabe**. (Mahai Orokorra, Osakidetza, Hezkuntza, Administrazio Orokorra, udal eta foru administrazioan...).

📍 **Behin-behinekotasun-tasak** onartezinak dira.

📍 **Pribatizatzen** jarraitzen da, eta dagoeneko 100.000 langile inguru azpikontratatuta dago.

📍 **Erosahalmenaren galera** metatua % 20koa izan da azken hamarkadan.

📍 Murrizketak, plantila urriak, plantilen osasun fisikoari eta emozionalari kalte egiten dioten antolaketa-neurri eta erabakiak, besteak beste; **lan-kargak handitzea**, ordezkapenik ez egitea, belaunaldi-erreleboaren planifikaziorik eza, osasun-zainketen konplexutasunaren gorakada, egonkortasunik eza, kontziliazio-neurriei heltzeko zailtasunak, ikasleen eta artatu beharreko biztanleen gero eta aniztasun handiagoa, desberdintasun sozialak sortzen dituzten politikak. Horrek guztiak ondorio larriak ditu zerbitzuaren kalitatean.

📍 Zerbitzu Publikoak eta bertan lan egiten duten langileak benetan **euskalduntzeko plangintzarik eta baliabiderik ez dago**, zerbitzua euskaraz lantzen eta eskaini ahal izateko.

📍 **Lan-baldintzak okertzeakeragin handiagoa du emakumeengan**. Aipatu behar da, gainera, eremu batzuk oso feminizatuta daudela. Behin-behinekotasun-tasa handiagoa da emakumeen artean, eta lanaldi partzialak orokorrak dira emakumeak gehiengoaren diren sektoreetan eta/edo kolektiboetan. Gainera, soldata arrakala %25 baino handiagoa da.

Pandemiak agerian utzi zituen narriadura horren ondorioak. Hiru urte geroago, egoera hori konpondu beharrean, euskal erakundeek superabita izaten jarraitzen dute mozkin pribatuak gizontzako: gizarte premiak larriagotzen eta zerbitzu publikoak okertzen diren bitartean euskal gizarteak sortutako 10.000 milioi euro bankuetan gordeta dituzte (2023an diru bilketa errekorra izan da).

Horregatik, ELAk, LABek, CCOOk, **STEILASek**, SATSEk eta ESK-k egoera hori lehengoratzeko, zerbitzu publikoen eta horiek ahalbidetzen dituzten pertsonen alde egiteko eta honako erabaki hauek hartzeko eskatu diegu erakundeei eta alderdi politikoei:

## Aurrekontuetan:

📍 Estatu aurrekontuetan: soldata publikoak eta enplegu publikoaren beharrak hemen mugarik gabe ezartzea. Oinarrizko legediaz mozorrotutako soldata-mugarik eta birjарpen-tasarik gabe, hau da, oztopoak kentzea.

📍 EAEko aurrekontuetan: zerbitzu publikoak indartzea, enplegu publikoa sortzea eta kontsolidatzea, lan-baldintzak hobetzea eta galdutako erosahalmena berreskuratzea ahalbidetuko duten aurrekontuak onartzea.



## Negoiazio-mahaietan honako neurri hauek adostea:

### 📍 Soldatetan:

- **%10eko soldata-igoera.** Azken bi urteetako erosahaltenaren galera berreskuratzeko eta 2024koa bermatzeko.
- Aurretik galdutako **erosahaltenaren gaineko zorra aitortzea** eta berreskuratzeko benetako konpromisoa hartzea.

### 📍 Enpleguan:

- **Pribatizazio berririk ez.** Eta jada pribatizatutakoa publikatzeko plana adostu langileen subrogazioa bermatuz.
- Egiturazkoa den ezkutuko enplegua azalartzea eta sortu beharreko lanpostuak adostea.
- **Behin-behinekotasun** erreala %8tik behera kokatu, horretarako neurriak hartuz horrela ez den langile kolektiboetan eta horretarako beharrezkoak diren EPE egutegiak eta orain arte lanean aritu diren langileek lanpostuak kontsolidatzeko izan daitezela adostuz.
- Inposatutako jardunaldi partzialak ezinezkoa dela erabakitzea.
- **Plantilak gaztetzeko neurriak:** erretiro-kontratua langile publiko guztientzat baldintza onenetan, erretiro-primak eta lanaldi-murrizketak berreskuratzeko.

### 📍 Lan-osasuna:

- **Lan-kargak murrizteko** neurri zehatzak adostea.
- **Formakuntza** egokia eta egokitua bermatzea.
- **Langileen ongizate fisikoa eta emozionala** bermatzeko arrisku psikosozialen eta arrisku ergonomikoen ebaluazioak egin urtebeteko epean, eta neurri zuzentzaileak adostu.
- Langile publikoen **osasunaren kudeaketan publikotik indartu**, mutuen papera gutxituz.

### 📍 Euskara

- Administrazioaren benetako **euskalduntzea** bermatzeko duten planak adostea.

#### Horretarako:

- Lehen aldiz lanpostu publiko bat betetzeko euskararen ezagutza nahikoa ziurtatuko duten langileak hautatu.
- Lanean diharduten langileei euskalduntzeko baliabideak formakuntza eta baldintzak bermatzea.

### 📍 Jardunaldiaren murrizketak **32 orduko lan astearen norabidean.**

### 📍 **Berdintasunerako benetako urratsak** ekarriko dituzten genero-arloko neurriak, besteak beste, berdintasun-plan erreal eta eraginkorrak negoziatzea.

ELA, LAB, COOO, **STEILAS**, SATSE eta ESK sindikatuok langile publikoei urriaren 25ean eta abenduaren 19ko greba deialdiekin bat egiteko deia egiten diegu, baita deitutako mobilizazio eta alde zuzeneko ekitaldietan parte hartzeko ere. ■

Zerbitzu publikoak indartzeko  
**HEMEN ADOSTU!**  
Lan baldintzak hobetu!

**GREBAK**  
Urriak 25 Abenduak 19  
EAEko sektore publiko osoan

- 📍 Madrietik datozen mugak ez onartu.
- 📍 Lan kargak arindu, osasuna bermatu.
- 📍 %10eko soldata igoera orain. Aurreko zorra berreskuratu.
- 📍 Enplegua sortu eta erabat egonkortu.
- 📍 Publikoa indartu, pribatizaziorik ez.
- 📍 Zaintza publikoa, politika feministak.

ELA · LAB · CC00 · ESK · STEILAS · SATSE

# HEZKUNTZA PUBLIKOA INDARTZEKO, LAN-BALDINTZAK HOBETU!

**STEILAS**, ELA eta CCOO sindikatuok hezkuntzako langileen lan-baldintzen hobekuntza dugu helburu. Izan ere, hori da modurik eraginkorrena zerbitzu publikoak indartzeko, baita Euskal Eskola Publikoaren alde borrokatzeko ere.

Asko dugu aldarrikatzeko. Lehenik eta behin, hezkuntza publikoko langileon lan-zama arintzeko neurri zehatzak behar ditugu; zeharo handitu den burokratizazioaren aurrean, kudeaketarako lanordu gehiago islatu behar dira ordutegietan, eta egungo ikasleen errealitateari erantzuteko baliabide gehigarriak behar dira. Langile zein ikastetxeekiko administrazioak zituen arreta zerbitzuek ez dute funtzionatzen, abandonatuta gaude.

Horrez gain, galdu dugun %20ko eros-ahalmena berreskuratzeko garaia dela defendatzen dugu. Baita plantilak gazteberritzeko ere, erretiroa aurreratu eta langile guztientzat jardunaldiaren murrizketa errealak gauzatuz. Lanpostu suntsiketa saihesteko bidean, premiazkotzat jotzen dugu horiek egonkortu eta estrukturizatzea, behin-behinekotasun erreala %8ra jaitsiz. Izan ere, horrek eragin zuzena du hezkuntza kalitatean. Egonkortasun hau gauzatu ahal izateko, EPE erdua eguneratzea eta deialdiak sindikatuokin adostea eskatzen dugu, baita langileak beren lanpostuetan kontsolidatzeko berariazko prozesuak martxan jartzea ere.

Hezkuntza sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak abiaraztea ezinbestekoa da, euskararen etorkizuna ezin baita mugatu ikastetxearen hizkuntza proiektuetara. Horrekin batera hezkuntzako langile guztiak euskalduntzeko plangintza adostu behar dugu.

Amaitzeko, hezkidetzeta proiektu errealak behar ditugula azpimarratu nahi dugu, ordu kreditu nahikoarekin hornituta, bizikidetzan eta berdintasunean eragiteko, eta horretarako ikastetxe guztietan egonkorra den pertsona aditua behar dugu; izan ere, matxismoa borrokatzeko tresna aparta baita gure Euskal Eskola Publikoa.

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen kasuan, azal dutako aldarrikapenez gain, beste hainbat gehitu

EAEko sektore publiko osorako deitutako bi greba egunez gain, **STEILAS** sindikatutik beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntza publikoko langileei berariaz zuzendutako beste mobilizazio bat egitea. Hortaz, hirugarren greba egun bat deitu dugu urriaren 24rako EAEko hezkuntza publiko ez-unibertsitarioan.

behar ditugu. Lehenik eta behin, sektoreko langile guztien mediku azterketak burutzea eskatzen dugu, psikosoziala ere bai. Horrez gain, gizarte funtsa aldarrikatzen dugu irakasle laboralentzat. Ratioak jais-tea, baliabideak esleitzeko irizpideak aldatzea eta langileen mugikortasuna murrizteko neurriak ezartzea ere beharrezkoa da. Amaitzeko, portaera arazo larriak dituzten ikasleak artatzeko babes protokolo eta neurriak ezartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Aipatutako guzti hau Lan Hitzarmen sektorialetan jasotzea nahiko genuke, negoziazio erreal baten ondoren. Izan ere, azken hamarkadan hezkuntzako langileon lan-baldintzak okertzen joan dira, eta hezkuntza sailaren aldebakarreko erabakiak nagusitu dira.

EAEko hezkuntza lege proiektuaren testuinguruan ezagutu ditugun lan-baldintzen inguruko akordioek ere ez dute zehaztasunik, ez dira nahikoak eta ez diete erantzuten aldarrikatzen ari garen edukiei.

Guzti honengatik, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailari langileen egunerokoa eta bizi-baldintzak kas-kartzten dituzten erabakiak eta hezkuntza politika prekarizatzaile eta pribatizatzailea alboratzea eskatzen diogu. Euskal alderdi guztiei, berriz, hezkuntzako langileon lan-baldintzak hemen erabaki ahal izatea ahalbidetzeko eskatzen diegu; horretarako Madrileko aurrekontuetan ezartzen diren mugak on-tzat ez emanez eta EAEko aurrekontuetan langileon erosahalamena berreskuratuz, enplegua sortu eta egonkortzea zein langileon lan-baldintzak hobetzea ahalbideratuko duten aurreikuspenak adostuz.

Hortaz, **STEILAS**, ELA eta CCOO sindikatuok urriaren 24ean grebara deitzen ditugu hezkuntza publiko ez unibertsitarioan dauden ondoko sektoreak: hezkuntza publikoko irakasleak, lan-legepeko irakasle eta hezitzaileak, sukaldariak eta garbitzaileak. Esan dugun moduan, gure helburua hemen azaldu ditugun aldarrikapenen benetako negoziaketa erreal bat gauzatzea da. Hori gertatu ezean, egindako mobilizazio eta greba dinamika baloratu eta hurrengo mobilizazio dinamika definituko genuke. ■



# Urriak 24 eta 25 greba hezkuntza publikoan



Galdu dugun %20aren eros ahalmena berreskuratu.



Erretiroa bizkortu eta plantila gazteberritu, 60rekin jubilazioa guztiontzat, beharrezko formulak aplikatuz.



Iraungita dauden lan hitzarmena berritu.



Lan-zama arintzeko neurri zehatzak behar dira kolektibo guztietan:

- Ratioak murriztu.
- Arreta zuzeneko orduak murriztu.
- Ordezkapenak bete.
- Egungo ikasleen beharrei erantzuteko baliabideak jarri.



Sailaren aldetik langileekiko arreta zuzena berreskuratu, Delegaritzetan baliabideak gehitu.



Behin-behinekotasun erreala %8ra jaitsi, langileak beren lanpostuetan egonkortuz.



EPE eredia eguneratzea eta deialdiak sindikatuokin adostea.



Pribatizaziorik ez.



Hezkuntza sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak ezartzea.



Hezkidetza proiektu errealak gauzatzea, ordu kreditu nahikoarekin hornituta, bizikidetzan eta berdintasunean eragiteko.

**GREBA**  
urriak  
24 eta 25  
abenduak  
19  
Hezkuntza Publikoan

Honegatik guztiagatik deitzen zaituztegu grebara urriaren 24ean eta 25ean, gure lan baldintzak borrokatu ezean, Hezkuntza Sailak aldebakarrez hauek kaskartzen jarraituko duelako.



# Udazkena MOBILIZAZIOAK

## Publikoaren defentsa

### Hezkuntzako egutegia - Sektoreko mobilizazioak

#### URRIA

- ✓ **EHU Greba.** **11**
  - EHUko ikerlari eta irakasleak.
  - Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
- ✓ **Hezkuntza Publikoko Greba.** **24**
  - Irakasle funtzionario eta ordezkkoak.
  - Lan legepeko hezitzaile eta irakasleak.
  - Garbitzaile eta Sukaldariak.
- ✓ **Sektore Publikoko Greba.** **25**
  - Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile eta langileak.
  - Irakasle funtzionario eta ordezkkoak.
  - Lan legepeko hezitzaile eta irakasleak.
  - Garbitzaile eta Sukaldariak.
  - EHUko ikerlari, irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langileak.

#### AZAROA

- ✓ **Greba Feminista Orokorra** **30**

#### ABENDUA

- ✓ **Sektore Publikoko Greba** **19**




EHU Greba



Sektore Publikoko Greba



Hezkuntza Publikoko Greba



Greba Feminista Orokorra

# Lan baldintzen alde






# Zerbitzu publikoak indartzeko eta Euskal Eskola Publikoaren alde borrokatzeko

## Aldarrikapenak:

- ▶ Galdu dugun %20aren eros ahalmena berreskuratu.
- ▶ Erretiroa bizkortu eta plantila gazteberritu, 60rekin jubilazioa guztiontzat, beharrezko formulak aplikatuz.
- ▶ Iraungita dagoen lan hitzarmena berritu.
- ▶ Lan-zama arintzeko neurri zehatzak behar dira:
  - \* 23 arreta zuzeneko orduak murriztu
  - \* Irakasleok egin beharreko burokratizazioa gutxitu.
  - \* Egungo ikasleen errealitateari erantzuteko baliabide gehigarriak jarri.
- ▶ Sailaren aldetik langileekiko arreta zuzena berreskuratu.
- ▶ Lanpostuak egonkortzea eta plantilak estrukturalizatzea.
- ▶ Behin-behinekotasun erreala %8ra jaitsi.
- ▶ EPE eredia eguneratzea eta deialdiak sindikatuokin adostea.
- ▶ Privatizaziorik ez.
- ▶ Hezkuntza sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak ezartzea.
- ▶ Hezkidetza proiektu errealak gauzatzea, ordu kreditu nahikoarekin hornituta, bizikidetzan eta berdintasunean eragiteko.

Honegatik guztiagatik deitzen zaituztegu grebara urriaren 24ean eta 25ean, gure lan baldintzak borrokatu ezean, Hezkuntza Sailak aldebakarrez hauek kaskartzen jarraituko duelako.



# Lan baldintzen alde

# Adinagatik ordu lektiboen murrizketak jasan dituen murrizketak

Arartekoak adinagatik ordu lektiboen murrizketa gaizki aplikatzen ari dela jakinarazi dio Hezkuntza Sailari, baina ez da lehen aldia baimen honen inguruan Arartekoak kontu eskatu diola. Memori pixka bat egin dezagun.

2010 urtean CCOO eta UGTk gutxiengoan sinatu zuten, eta gaur egun indarrean dagoen Lan Hitzarmenean, konkretuki 61. artikuluan, adinagatik zuzeneko arreta orduen herenaren murrizketa jasota dago, eta aurretik ere bai, beraz, eskubide berri bat ez da. Berria dena, honen aplikazioa da.

## 61. artikulua.– Orduak murriztea.

1.– Irakasjardunaren murrizketak mantenduko dira 60 urtetik goragoko irakasle funtzionarioentzat. Horiek bakarrik aplikatuko zaizkie 65 urte baino gutxiago dituzten funtzionarioei eta, 65 urte beteta izan arren, erretiroa hartzeko eskubidea kausatzeko beharrezko gabezia-aldia estalita ez dutenei.

Batzorde paritarioak banaka aztertuko du neurri hori aplikatu ala ez premia egiaztatuta izan eta 65 urte beteta duten beste irakasle batzuei.

Irakastorduen herenaren murrizketa 2010eko akordioan jasota egon arren. Hezkuntza Sailak 2012 urteko murrizketen barne sartu zuen. 2018an berriro indarrean jarri bazen, 2018ko maiatzean sinatutako lan akordio partzialak 11. puntuan hala jasotzen zuelako izan zen.

Hala ere, aipatu dugun 11. puntu horrek esaldi hau ere jasotzen zuen:

Ordu lektiboen murrizketa bitarteko irakasleei zabaltzeko aukera zein baldintzatan emango den berehala eta gehienez sei hilabeteko epean aztertu eta negoziatuko da, eta ahalik eta arinen aplikatuko da.

2018ko maiatzaren 14tik sei hilabete baina gehiago pasa diren honetan, bitarteko irakasleek ez dute eskubide hau gauzatzeko aukerarik izan, Hezkuntza Sailak hala nahi izan duelako. Esaldiak, bitarteko irakasleei murrizketa hau aplikatzea ez du inongo momentuan zalantzan jartzen, zein baldintzatan izango litzatekeen baizik.

Hezkuntza Sailari, Arartekoaren lehen kontu hartzea interinoei eskubide hau ukatzearen harira doa.

2022ko ekainaren 9ko ebazpenak, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu dio adinagatik irakastorduek murrizteko aukera bitarteko irakasle funtzionarioen kasuan ere aplika dezala eta berrius ditzala hedapen hori kontuan izan gabe hartu diren 2022- 2023 ikasturteari dagozkion jarduketak.

# Adinagatik ordu lektiboen murrizketak jasan dituen murrizketak

Besteak beste, Arartekoak Europako jurisprudentziak funtzionario eta interinoren lan baldintzen inguruan eskubide berdinak aitortzen zaizkiela arrazoitzen du. 2023-24 ikasturtean 120 irakasle interino izan dira eskubide hau urratu zaienak.

Aurrez aipatu dugun moduan, aurreko adibide hau ez da adinagatik ordu lektiboen murrizketak jasan duen eraso bakarra. 2022-23 ikasturtetik aurrera, baimen hau jasotzeko eskaera betetzean, 62 urte beteak dituzten langileei Gizarte Segurantzaren egindako erretiro-simulazioa eskatzen hasi dira. Simulazioa aztertuta, borondatezko erretiro aurreratua eskatzeko aukera dutenei baimena ukatzen ari zaie nahiz eta pentsioan galera handia izan. "Borondatezko erretiroa eskatzeko aukera" zutela argudiatuz, 23-24 ikasturteko deialdian 102 langile geratu dira ordu lektiboen murrizketarik gabe. Hezkuntza Sailaren arabera, "langile hauek lanean ari badira, beraiek nahi dutelako da, beraz, ez daitezela gainera ordu lektiboen murrizketak eskatzera etorri...".

Arartekoaren bigarren kontu-hartzea aurreko prozedura honen inguruan etorri da, eta orain ere langileei arrazoia eman die. Arartekoaren 2023R-2175-23 Ebazpena, 2023ko irailaren 26koak, *Hezkuntza Sailari gomendatzen dio ezetsitako adinaren arabera irakastorduak murrizteko eskaera guztiak, berehala berrikusi ditzala 2023-2024 ikasturteari begira.*

Besteak beste Arartekoak honako hau argudiatzen du:

**EAE-ko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, 185/2010 ekoa indarrean dago, eta 61.artikuluak 60 eta 65 urte bitarteko funtzionarioei eskola lanaldiaren herena murriztuko zaiela xedatzen du.**

61. artikuluari eusten badiogu eta nahiz eta Arartekoaren ebazpenak ez jaso, simulazioak eskatze-kotan, 65 urtetik gorakoei izan beharko luke.

Laburbilduz, lan akordioan jasota dagoen eskubide honek eraman duen ibilbidea ez da xamurra izan, langileen arteko bereizketa sustatzeaz gain, adin gehien duten langileei ukatzera iritsi baita. 2012tik 2018ra indargabetuta egon zela ahaztu gabe. Eta hau guztia langileen ordezkariekin adostu gabe eta erabaki guztiak Hezkuntza Sailak aldebakarrez hartuz. Adinagatik ordu murrizketen aplikazio okerra Hezkuntza Sailak lau euro aurrezteko hartutako neurri bat da, erretiroa hartzeko atetan dauden langileen osasuna kontuan hartu gabe.

Hau horrela, **STEILAS**ek eskatzen duena, 2018ko akordioak jasotzen duen moduan, bitarteko langileek adinagatik ordu lektiboen murrizketa izatea da, simulazioak alde batera utzi eta 60 urtetik gorako langile guztiei aplikatzea eta murrizketa erreala izatea, hau da, murriztutako ordu horietan langilea etxera joan ahal izatea. ■

**Ez dugu eskubideak murrizten dituen Lan Akordio berririk sinatuko!**



## Zertan da adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa bitarteko langileentzat?

Joan den ikasturtean, denboran luzatu zen borroka judicial gogor baten ondoren, lan-legepeko finkoak Adinagatiko Arreta Zuzenaren Murrizketaz gozatu ahal izan genuen lehenengo aldiz. Epaitegietan irabazitako borroka izan zen, baita gure kolektiboko langile guztien ahaleginari esker irabazitako borroka bat ere. Izan ere, eskubide hori merezi zutenek beharrezkoak ziren erreklamazio eta eskaerak eta gora jotzeko helegiteak egin zituzten, nekaezinik; nahiz eta baiezkorik jasoko ez zutela jakin.

Ondoren, gure plazak finkatzeko mekanismoak urteetan abian jarri ez zirenez, eskaera egiteko baldintzak betetzen zituzten bitarteko langile asko genituela kontuan harturik, pauso bat gehiago eman eta berriro ere gaia judicializatu genuen; kasu honetan, Adinagatiko Arreta Zuzenaren Murrizketa bitarteko langileei ere zabaltzeko. Izan ere, bitarteko langileei finkoak ez izateagatik eskubide hori ukatzea astakeria bat izateaz gain, konparaziozko bidegabekeria bat dela uste dugu.

Berriro aldeko epaia jaso genuen. Ez zen harritzekoa; gure kolektiboan urte askoan Hezkuntza Sailean lan egin duten 59 urtetik gorako langile asko baitaude lanpostu finkorik gabe.

Epai honen aurrean, Administrazioak errekurritu egin zuen berriro ere. Nola ez! Orain, Administrazioaren errekurtsoren ondoriozko epaia jasotzeko denbora luze igaro daitekeenez, epaia behin-behinean betearazteko eskatu dugu eta justiziaren zain gaude, berriro ere. ■

## Urria, azaroa eta abenduan lan-legepekoak kalera!

**STEILAS**tik hezkuntza publikoko langileon lan-baldintzen okertzea hainbatetan salatu dugu, baita zurekin elkarbanatu ere, eta gure helburua, zalantzarik gabe, gure sektoreko lan-baldintza horien hobekuntza da.

Horretarako, **STEILAS**ek joan den maiatzean lehen intersindikala deitu zuen, betiko moduan batasun sindikalaren alde eginez. Helburua argia zen; Hezkuntza Publikoko langileen lan-baldintzen aldeko grebak deitzea. Eta horrela proposatu genuen intersindikal horretan.

Beste sindikatuen aldetik, berriz, hezkuntza publikoan grebak deitzea baino funtzio publiko osoko grebak deitzea ikusten zen egokiago, baina zerbitzu publikoa indartu nahi bada eta **STEILAS** irakaskuntzako sindikatu bat izanik, nola utzi albo batera irakaskuntza publikoko langileak eta Euskal Eskola Publikoa?

**STEILAS**etik, funtzio publikoko grebak soilik eginez hezkuntzako langileon aldarrikapenak oso difuminatuta geratuko zirela aurreikusiz, gure helburua lehenetsi genuen; funtzio publikoko grebak deituko genituen Hezkuntza Publikoko greba sektorialak ere deitzen baziren.

Sindikatu batzuk ez zuten bat egin gure asmoarekin eta mahaitik altxa ziren. Hau horrela, bigarren intersindikal bat aktibatu behar izan genuen: hezkuntza publikoko langileen lan-baldintzen alde antolatzeko. Beti ere eta azken momentura arte sindikatu guztiei atea zabalik utziz.

Horrela, funtzio publikoko grebei (urriak 25 eta abenduak 19) beste greba egun bat gehitu diegu **STEILAS**, ELA eta CCOO-ek; urriaren 24a, Hezkuntza Publikoko Greba.

Administrazioak langile eta ikastetxeekiko zituen arreta zerbitzuek ez dute funtzionatzen, bunkerizatuta jarraitzen dute, eta langile eta ikastetxeak abandonatuta gaude. Eta nola ez, honi, sailak aldebakarrez hartzen dituen erabakiak gehitu behar dizkiogu: edoskitze metaturako egunen kalkulua, udarako soldaten doikuntza, LEP-ko azterketak direla eta norberaren eginkizunetarako baimenak ez ordezkatzeara (berdin gertatu zen zubien artean zeuden egun solteekin)...

Lan-legepekoentzat oso garrantzitsua da greba propio hau, gure sektorea txikia izanik, ikusgarritasuna bermatzen digulako, gure aldarriak benetan entzungo direla jakin behar dugulako eta ikastetxeetan egiten dugun lanaren aitortza ezinbestekoa delako. Guk ez badugu ahotsa altxatzen, nork entzungo gaitu? ■

**Bunkerizazio eta aldebakarreko erabakirik ez!**

**Urriaren 24an Lan-legepekoak grebara!**





# Zerbitzu publikoak indartzeko eta Euskal Eskola Publikoaren alde borrokatzeko

## Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileen Aldarrikapenak

### Madridik datozen mugak ez onartu.

- \* Kontratu ereduak, soldaten igoera, LEP ereduak, gaixotasun profesionalak... Mahai Negoziatzaileetan landu eta adostu.

### %10ko soldata igoera orain. Aurreko zorra berreskuratu.

- \* %10eko soldata igoera kolektibo guztientzat.
- \* Eros ahalmena berreskuratu.

### Lan karga arindu, osasuna bermatzeko.

- \* 2004tik iraungita dugun lan-hitzarmena berri: negoziatorako egutegi bat zehaztu eta bete, lizentzia eta baimenak berri eta bitartekoenak finkoenekin parekatu, funtzioak eguneratu, ordezkoen araudia, udaren puntuazioa...
- \* Ratioak jaitsi.
- \* Baliabideak esleitzeko irizpideak aldatu, gardentasuna bermatu.
- \* Langileen mugikortasuna murrizteko neurriak.
- \* Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa bitarteko langileentzat eta arreta zuzeneko ordu efektiboen araberakoa.
- \* 60 urterekin "pizgarrien bidezko erretiroa".
- \* Sektoreko langile guztien mediku azterketak burutu (psikosoziala ere bai).
- \* Gizarte funtsa irakasle laboralentzat.
- \* Portaera arazo larriak dituzten ikasleak artatzeko babes protokolo eta neurriak.

### Enplegua sortu eta erabat egonkortu.

- \* Lanpostuen zerrenda handitu.
- \* LEPan lanpostu gehiago eskaini.
- \* LEPak 2 urtetik behin gauzatu.
- \* Kontratu ezberdinak metatzeko aukera.
- \* Bateragarritasuna aitortu.


### Publikoa indartu, privatizaziorik ez.

- \* Mediku azterketak, formakuntzak... arlo publikotik eta euskaraz.
- \* Langileak euskalduntzeko plan bat garatu.
- \* Lanpostu guztiak euskarako hizkuntza-eskakizunekoak.
- \* Prest\_Garako eskaintza handitu kolektibo guztietan.

### Zaintza publikoa, politika feministak.

- \* Hitzarmenean jasotako genero-berdintasunaren aldeko neurriak egungo errealitatera egokitu.

**Bunkerizazio eta aldebakarreko erabakirik ez!**



# Lan baldintzen alde

# UPV/EHU zaharrak ez dira berri

Garai batean ordezkakoak ziurak izaten ziren UPV/EHU bat. Tamalez, baina, urteak daramatzagu irakasleen ordezkapen-baldintzak okertzen eta gutxitzen doazela ikusten. Esaerak horrela ez delabadio ere, zoritxarrez, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan zaharrak ez dira berri. Gurasotasun ordezkapen bat ukatzea edota ordezeko irakaslearen hasiera hilabeteetan atzeratzea, irakasle-ikertzaile guztien egunerokoaren parte den arazoa da gaur egun. Hala, ordezkatu gabe geratzen den lan hori gainerako lankideen artean banatu behar da eta, horrek, beraien lan-zama handitzen du. Batzuetan gainera, ikasleek ere zuzenean pairatzen dituzte halakoek dakartzaten ondorioak, izan ere, kasu askotan zama hori bere gain hartu duen irakaslea taldeak batzera behartuta egoten da.

Orain, aipatu dugun eta irakasle-ikertzaileen alorrean horren ezaguna den egoera horri, Unibertsitate Sistemako Lege Organikoa (USLO) gehitu behar diogu. Ordezekoaren irudia interpretatzerakoan, UPV/EHUko zuzendaritzak lan-hitzarmena edota lan-poltsen araudiari muzin egin eta lege berrian jasotzen dena hartu du soilik aintzat. Horrenbestez, bidea hartuta zuten ordezkapen murrizketei, politika berriak ekarriko dituen ondorioak gehitu behar dizkiogu:



■ Hilabetean 800€ baino gutxiago kobratuz lanaldi partzalean jardungo duten irakasleen kopurua handitu.

■ Irakasle guztien irakaskuntza-zama handitu.

■ Sailei irakaskuntza-antolaketa zaildu.

■ Irakasgaien kalitatea okertu: ikasgai berbera irakasle ezberdinen artean banatu beharra, materiak egoki prestatzeko denbora falta, irakasle ez horren egokiak hautatu beharra...

**STEILAS**en arduratuta gaude. Izan ere, beti aldarrikatu dugun finantzazio faltari azken garai hauetan bata bestearen atzetik etorri diren murrizketak gehitu behar baitizkiogu, eta ordezkoren auzi hau, zerrenda horretako bat gehiago besterik ez da. Zerrenda horretan ditugu adibidez, erretiroen akordioak deuseztatzea, zentroen itxiera, oinarrizko lan-baldintzak okertzea...

Horrez gain, abian dagoen Jardun Akademikorako Planaren (JAP) erreformaren asmoak ere ezagutu ditugu, ikerkuntza eta kudeaketa lanak aitortzeko tresna dugu hau eta beharrezko berrantolamenduaren aitzakia erabiliz, irakasle lan-zama oraindik gehiago areagotzea ekarriko duela jakin dugu. Horregatik guztiatik eta abiapuntu moduan ordezkoen arazoa hartuta, LABekin, ELAekin eta CCOOekin batera, mobilizazio dinamika bati ekin diogu **STEILAS**en. Urriaren 11n kalera atera gara!

Kalera atera gara eta aterako gara errektoretza taldeak negoziatzeko borondatea eta planteamendu argiak aurkeztu arte, eta kalera aterako gara Eusko Jaurlaritzak Unibertsitate Publikoari babes gehiago ematen ez dion bitartean. Ozen esango diegu lanaldi osoko irakasle eta ikertzaileen lanpostu guztiak ordezkatu behar direla, lanaldi partzialeko kontratu kopurua murriztu behar dela, lanaldi partzialeko kontratuei soldata duina ezarri behar zaiela... argi adierazi diegu kalitatezko Unibertsitate Publikoak baldintza horiek guztiak betetzen dituela eta helburu hori lortzeko, nahitaezkoa dela kalitatezko finantzazioa duen EHU izatea. ■

## EHUko irakasle eta ikertzaileen greba arrakastatsua izan da

Grebara deituta zeuden irakasle eta ikertzaileek masiboki sotengatu dute greba

EHUko campus guztietan grebak oso jarraipen zabala izan zuen. Zentro gehienetan klase gehienak bertan behera geratu ziren. Zentroak irekita egon baziren ere (Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak, plantillaren laurden bat, ez zeuden grebara deituta), aktibitate akademikoa oso eskasa izan zen. EHUko Irakasle Kontseiluak berak etenaldi akademiko batera deitu zuen Urriaren 11rako. Izan ere, EHUko langileok pairatzen ditugun arazo, prekarizazio eta lan-baldintzen okertzeak ondorio zuzena dauka ikaslerian ere, ordezeko irakasleekin sortutako egoerak kasu. Hain zuzen, irakaskuntzaren kalitatea nabarmen kaltetuta geratzen da.





Grebaren mobilizazioetan ere parte-haritze handia egon zen. Bilboko elkarretaratzean 550 bat irakasle-ikertzaile bildu ziren, eta Hezkuntza ordezkaritzaren inguruko espaloiak txikiegiak izanda, langileek errepidea okupatu zuten. Donostian 400 bat pertsona izan ziren Hezkuntza ordezkaritzaren aurrean, eta Gasteizen, errektoreordetzaren aurrean eta Hezkuntza ordezkaritzaren aurrean egindako elkarretaratzetan, zein bi gune horiek lotu zituen manifestazioan, 200 bat irakasle-ikertzaile egon ziren. Beraz, 1200 bat irakasle-ikertzailek hartu zuten parte mobilizazioetan. EHuko irakasle-ikertzaileentzat deituta zegoen etenaldia azken hamarkadetako arrakastatsuen bilakatu zen.

Arratsaldean ere ekintza ikusgarria burutu zen Bilboko itsasadarrean, Itsas Museoa ospatzen ari zen TREC Bilbao 2023 ekitaldiaren aitzakiarekin, aginte akademiko eta politikoen aurrean.

Irakasleen bajak eta baimenak 800 eurotan kontratatutako lanaldi partzialeko irakasleen bidez betetzea grebara deitzeko piztailea izan da, baina ez eragile bakarra. Azken urteetan, eremu askotan, EHuko irakasle-ikertzaileen baldintzen



okertzea pairatu dugu: lan-zama handitzea, aldi baterako irakasle-ikertzaileei ikerketa-seiurtekoak ukatzea, lanaldi partzialeko irakasleei irakaskuntza-bosturtekoak ukatzea, plantillaren ezegonkortasun handia, ikertzaileen prekarizazioa, ikertzaile-ibilbidearen garapena oztopatzea, erretiroen akordioen deuseztatpena, aldebakarreko campusen itxiera, burokrazia handitzea...

EHUko aktibitate akademikoa gutxienean utzi duen greba honen bitartez, EHUko irakasle-ikertzaileok argi utzi diogu EHUko zuzendaritzari norabidea aldatu behar duela, aldebakartasuna alboratu behar duela eta bere langileen kontrako neurriak gelditu behar dituela. Bikaintasuna behin eta berriro aipatzen badute ere, Shanghai ranking-arekin liluratuta badaude ere, lan-baldintza duinik ez duen plantillarekin ezin da kalitatezko unibertsitate bat garatu.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari argi esan diogu unibertsitate publikoa ahultzen saiatzean aurrean izango gaituela, eta EHUrako nahiko baliabide bideratu behar dituela, baita bere langileen soldadak duindu. ■



# Urteak eman ditugu Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna eskatzen eta azkenean gauzatu da, baina zein preziotan?

**Irailaren 1etik aurrera hasi da aplikatzen doakotasuna Haurreskolak Partzuergoan, baina zerbitzuarentzako onurak ekarri behar zituen neurriak kalteak ere ekarri ditu.**

Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoak ez zuten egin nahi izan ikasturte honetan doakotasuna aplikatuko zela kontutan izanda sortuko ziren beharrak asetzeko behar beste inbertsio. Bestalde, neurri murriztaileak aplikatzea erabaki zuten haurren onartze prozesuan eta zerbitzuan. Ondorioz, hainbat murrizketa eta zailtasun sortu dira: ordutegietan, haurrak onartzeko baldintzetan, ordezkapenetan... Hori dela eta, ehunka familia kalean geratu dira.

Haurreskola eta ikaspostu berri gehiago behar dira gizartean dagoen eskariari erantzun ahal izateko eta aukerak zabaltzeko. Aplikatutako neurrien ondorioz, ez zaie zerbitzu bera eskaintzen familia guztiei; Haurreskola handietako familiek egutegi eta ordutegi zabalagoak dituzte txiketakoak baino.

Hezitzaileen egoera ere kaskarra da. Haurreskola txiki askotan hezitzaile bakarra dago lanean ordu askotan eta hainbat eta hainbat ordezkapen eta lanaldi murrizketa ez dituzte ordezkatzeko. Lanpostu estrukturalak betetzeko, hezitzaile asko beraien lanpostuetatik mugitzen dituzte eta kontratu egonkor berri gehienak jardun murriztuan gauzatzen dituzte, horrek sortzen duen prekarietatearekin. Egoera horrek lan-istripuak ahalbidetzen ditu eta, zoritxarrez, irailaren 20an lankide bat galdu genuen lanetik etxera bidean kotxez zihola. Guzti horrek, hezitzaileengan lan karga izugarria sortzeaz gain, haurren zaintza egokia ez bermatzea dakar egunerokotasunean.

Haurreskolak Partzuergo Publikoko langileak gara. Adin txikiko haurren zaintza gure esku dago asteko 5 egunetan zehar, baina Eusko Jaurlaritzari eta enpresari bost axola zaie haur hauen eta hezitzaileen ongizatea. Bitartean, Eusko Jaurlaritzak diru publikoa sektore publiko guztietatik murriztu eta sektore pribatuetara bideratzen ari da.

Haurreskolak Partzuergoko 0-2 urteko haurren zaintza egokia eta duina bermatzea exijitzen diegu Eusko Jaurlaritzari eta Haurreskolak Partzuergoari. Ordezkapen (bajak, jardun murrizketak, 60 urtetik gorakoentzako baimenak...) guztiak lehen egunetik bertzea (hezitzaileen prestakuntza eta koordinazio orduak kontutan izanda), Haurreskola txiki guztietan bi jardun oso bermatuz eta familia guztiei zerbitzu berdina eskainiz! ■



# HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ESKAERAK



## Publikoaren defentsa

### Madriletik datozen mugak ez onartu.

- Kontratu ereduak, langile publikoen soldaten igoera, OPE ereduak, gaixotasun profesionalak... Madrildik inposatzen dizkigute. Mahai negoziatzaileetan landu eta adostu behar dira.

### Lan karga arindu, osasuna bermatzeko.

- Gazte berritze planak sortzea.
- Errelebo kontratua; erretiro partzial aurreratua hartzeko eskubidea izatea.
- Adinagatiko ordu murrizketak ordezkatuak izatea.
- Gaixotasun profesionalak errealitatera egokitzea.
- Langile finkoek urte sabatiko eskatzeko eskubidea izatea.
- Arreta goiztiarreko haurren beharrianak, behar bezala kudeatzeko, protokolo eraginkorra abian jarri dagozkion neurri eta baliabideekin.

### %10ko soldata igoera orain. Aurreko zorra berreskuratu.

- Eros ahalmena berreskuratu.

### Enplegua sortu eta erabat egonkortu.


- Lanpostuen zerrendako lanpostuak jardun murriztuekin ez bete.
- Lanpostuen zerrenda handitu.
- Bi jardun oso gelako.

### Publikoa indartu, pribatizatorik ez.

- Doakotasunaren truke ezarritako murrizketak kendu; ordutegietan, ratioetan...
- Haur Eskola pribatuei diru-laguntzarik ez.
- Hezkuntza Sailak egin dezala Haurreskolak Partzuergoaren kudeaketa zuzena, eredu gerentziala kenduz eta Haurreskolak Partzuergo Hezkuntza sistema barruan eta eskola mapan txertatuz.

### Zaintza publikoa, politika feministak.

- Haurreskolak Partzuergoko egutegia Eskola Publikoko egutegiarekin parekatu.
- Langileen Osasunaren zaintza publikotik indartu mutuen lana desagerraraziz.



# Lan baldintzen alde

# LAN GATAZKA AMAIGABEA ETA JENDARTE DESBERDINKERIA SAKONA

## Greba egunak

**Urriak 17 Bilbo  
manifestazioa  
11:00etan Gran Vía, 85etik**

**Urriak 18 Gasteiz  
manifestazioa  
11:00etan  
Egibidetik (Bilbo Plaza)**

**Urriak 19 Donosti  
manifestazioa  
11:00etan  
Aldapeta Maria ikastetxetik**

**Abenduak 11, 12, 13, 14, 15**

Nabarmena da EAEko ikastetxe pribatu kontzertatuetako gatazka kolektiboa amaiezina dela; orain gu-txi, langileen %100 ordezkaten dugun sindikatuok beste zortzi greba egun deitu ditugu urrian eta abenduan. Greba horietara deitzeko arrazoia garbia da: Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek negoziazio kolektiboa erabat blokeatuta dute 2019an azken hitzarmena sinatu zenetik (ez dezagun ahaztu, 29 greba egun behar izan zirela sinadura hartarako).

Gure aldarrikapen nagusiak ondokoak dira: prekarizatuak eta feminizatuak dauden kolektiboen lan-baldintzak hobetzea, lan-kargak arintzea, enpleguari eusteko neurriak ezartzea, lanbide-heziketa arautzea eta KPIa (2020az geroztik %11,8) bermatuko duen soldata igoera ezartzea. Aldi berean, ordea, EAEko ikastetxe pribatu kontzertatuek jasotzen dituzten modulu ekonomikoak %15 igo ditu Hezkuntza Sailak; batxilergoaren kasuan, %13,8. Ez da, ordea, zentzuzkoa Hezkuntza Sailak ikastetxe horiei finantzazioa diru publikoz handitu izana KPI indizeaz harago, eta hala eta guztiz ere, langileen soldata ez bermatu izana sindikatuok behin eta berriz aldarrikatu dugun

moduan; are okerrago, soldatak 2020az geroztik izoztuta mantendu izana. Greba deialdiek, hortaz, justifikazio osoa dute. Horiez gain, ordea, bada arrazoi eskerga ere.

Sare pribatua doan izango den utopia saltzeko aitzakiapean inolako kontrol mekanismorik gabe finantzazioa handitzen jarraitzeak ondorio larriak dakartza; hala nola sareen arteko desoreka, baldintza beretan hezkuntza jasotzeko eskubidearen urraketa eta eskola segregazio handiagoa.

Heldu da Gizarte Ekimeneko langileok berriro ere borrokatzeko garaia eta gure lan-baldintzen alde egiteko garaia. Izan ere, patronalak patxada osoan baitaude merkantilizatutako eta erregulartzatutako gabeko hezkuntza marko honetan. Ondorioak begien bistakoak dira: lan gatazka amaigabea eta jendarte desberdinkeria sakona. Gora langileon borroka! ■



# LAN HITZARMEN BERRI BATEN ALDE!

## GIZARTE EKIMENA BORROKAN!

Lan Hitzarmenaren negoziaketarako sindikatuon aldarrikapen nagusiak

### Lan zamak arintzeko neurriak

- Irakasleak: eskola orduen murrizketa esanguratsua. Murrizten diren eskola orduak ordu osagarri bihurtzea eta ordu osagarri horiek lan pertsonalerako izatea.
- Irakasle ez diren langile tituludunak: Irakasleen urteko lanaldi berdina.
- Kolektibo guztietan ordezkapenen erregimena hobetzea.

### Soldatak

- KPIaren bermea.
- Aurrez galdutako eros ahalmena berreskuratzen joatea.
- DBH 1 eta DBH 2ko irakasleen soldata parekatzea.

### Enplegua. Lanpostuak mantentzeko

- Birkokapen prozedurari buruzko erreglamendua Hitzarmenean jasotzea eta betearazteko bermeak ezartzea.
- Birkokapen akordio mugagabea bermatzea.

### Behin behineko kontratazioa eta aldizkako kontratazio finkoa

- Lanaldi osoko kontratu mugagabeen nagusitasuna jasotzea.
- Aldizkako kontratu finkoen erabilpenik ez dela egongo jasotzea arau orokor bezala.

### Berdintasun planak

- Hitzarmeneko zentro guztietan.

### Sektore feminizatu eta prekarionentzat hobekuntzak

- HH Lehen zikloko langileak HH bigarren zikloko langileekiko homologazioan pausu garrantzitsuak.
- Hezkuntza Laguntza Espezialistak (EAE) lanaldi osoak bermatzea eta ordu osagarriak gehitzea arreta zuzenekoak murriztuz.
- AZP urteko lanaldi murrizketa esanguratsua, lan zamak neurtzeko eta mugatzeko neurriak ezarriz.

### Lanbide heziketa

- Lanaldi irregularra arautzea: Asteko ohiko eskola orduak gainditzeko baldintzak negoziatu eta hitzarmenean txertatu:  
Ordu lektibo eta osagarrien proportzioa mantendu beharko da Konpentsazioa egon beharko da.
- FCTs: 6 ordu astean ikasturte osoan; ez bakarrik praktika garaian.
- Tailerretan bikoizketa arautu.
- Lanbide Heziketako lege berriak ekar ditzaken aldaketen aplikazioa negoziatzea.

### Lan osasuna

- Behin behineko ez gaitasun osagarria baja-denbora efektibo osoan.
- Arrisku psikosozialak, bai prebentzioan baita identifikatutako gabeziak konpontzeko planak ezarri ikastetxe guztietan, jazarpen-protokolak barne.

### Euskara planak

- Plantilla osoarentzat, irakasleak ez direnak barne.

Euskal Herria, 2023ko apirilaren 20a.

# KAKTUS POLITIKAK HEZKUNTZAN

Nafarroako Gobernu aurrerakoi berriak Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilaria izendatu du, berriro ere. Bere politikak inposatu izan ditu sindikatuekin negoziatu gabe eta, ustez, Gobernua osatzen edo babesten duten gainerako indarren irizpideen kontra. Alderdien arteko poltronen banaketa inprudikoan oinarritua koalizio gobernu bat, non hezkuntza PSNren eta UPNren irudira sortutako *sottogoverno* baten menpe utzi duten.

Nafarroako Gobernu aurrerakoi berriak Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilaria izendatu du, berriro ere. Bere politikak inposatu izan ditu sindikatuekin negoziatu gabe eta, ustez, Gobernua osatzen edo babesten duten gainerako indarren irizpideen kontra. Alderdien arteko poltronen banaketa inprudikoan oinarritua koalizio gobernu bat, non hezkuntza PSNren eta UPNren irudira sortutako *sottogoverno* baten menpe utzi duten.

Gobernu honen ezaugarri nagusiak politika euskarafobikoak izan dira: Lezkairu eta Lerinen D erduei boikota egitea, ikasketa artistikoetan euskaraz ez ezartzea, Iruñeko HEOn euskara taldeak murriztea, etapa aldatzea bakoitzean A erduan ikasleak murrizteko politika, Nafarroa hegoaldeko ikastetxe batzuetan D ereduko irakasleek jasaten duten jazarpena, D erduan plaza egonkortuen

eskaintza eskasa, euskarazko irakasleentzako prestakuntza eskaintza murriztea, gobernuaren haur eskola berriak ez sortzea euskarazko eskaerari erantzuteko, Hezkuntza Departamentuan euskararen erabateko desnormalizazioa, etab. Espainiako hizkuntza erregimen supremazistak bere horretan dirau Nafarroan, Kongresuan hizkuntzen erabileran aldaketak gertatzen diren bitartean, eta European euskararen ofizialtasunari erreparatzen zaion bitartean.

Gobernuak ez du bete Nafarroako Hezkuntza Publikoa Hobetzeko Ituna. Eguneratu egin behar dela diote orain. Lehen, osorik bete beharko litzateke, eta gehiengo sindikalaren aldarrikapenekin hobetu: ratioen jaitsiera lineala, langileen egonkortasuna, erosteko ahalmena berreskuratzea eta gaitzuzteko ezabatzea. Ez dago jasota sindikatuekin izan beharreko negoziazioa, eta mobilizazioek baino ez ditu behartuko gure aldarrikapenak onartzen.

Koalizio gobernuaren koherentzia eskasaren froga da 2019-23 akordio programatikoa ez zela agertzen PALren Legea (orain "desadostasunetan" agertzen da), baina PSNk aurrera atera zuen Navarra Sumarekin. EH Bilduk eta Geroa Baik PALren Legea indargabetzea defendatu zuten hauteskunde programetan. Dena den, Geroa Baik, EHBilduk, Ahal Duguk eta Ezkerria-Ezkerrak PALren Legearen aurka bozkatu zuten arren (19 parlamentarik gobernua babesten dute, eta 11 PSNk), ez dute erabaki hori hartu. Horrek argi eta garbi erakusten du PSNak gogoak emandakoa egiteko baimena duela, eta gobernu horri eusten dioten alderdien kritiken alderdi zirikoa. "Progresista" hitza politika atzerakoien mozorro eta erantzun sozialari eusteko formula anestesiatzaile bihurtu da. ■



## Haurreskolak Partzuergoan, hezkuntza ez unibertsitarioan eta EHU-n MEDIKU ZERBITZUA PRIBATIZATU DUTE

Haurreskolak Partzuergoa, nahiz eta Hezkuntza Sailaren menpe egon beti kudeatu izan da enpresa pribatu bat izango balitz bezala, bertan eredu gerentziala ezarri. Honen adibide nabaria da bertako langileei egiten zaizkien mediku azterketak, IMQ eta hainbat enpresa pribatu desberdin kontratatuz burutzen direla.

Hezkuntza ez unibertsitarioan, mediku azterketak Eusko Jaurlaritzako prebentzio zerbitzuaren ardurapean egon behar lukete zuzen-zuzenean eta, azterketa hauek Jaurlaritzako medikuen eskutik egiten diren arren, Bizkaian eta Gipuzkoan analitikak IMQ enpresaren bitartez kudeatzen dituzte.

Arabian Meritu Lehiaketa bidez lanpostua lortu duten langileak QUIRON enpresa pribatuarekin ari dira mediku azterketak kudeatzen, Jaurlaritzako medikuak baja hartu duelako.

EHUko Pertsonalaren Lanpostuetako Zerrendan (RPT) berezko 4 mediku lanpostu daude. Bat Araban (Gasteizen), beste bat Gipuzkoan (Donostian) eta bi Bizkaian (bat Bilbon eta bestea Leioan). Donostia eta Leioako mediku propioak kontratatuta daude, eta beraiekin ez dago inolako arazorik. Bilbon eta Gasteizen berriz, bakantean dauden mediku-lanpostuak hutsik daude inork ez duelako eskaintzen dituzten baldintzetan lan egin nahi. Hortaz, oraingoz eta LEP berriarekin mediku berriak lortu bitartean, (behintzat itxaropen hori dugu), kanpoko enpresak kontratatuta egiten dituzte laneko azterketa medikuak, IMQ enpresarekin hain zuzen ere.

Zertan ari da Eusko Jaurlaritza? Hezkuntza unibertsitario eta ez unibertsitariorako osasun langile gehiago kontratatu beharrean (eta ez gara langile bakar baten inguruan hitz egiten ari, beharrezkoak diren mediku, erizain eta abarren inguruan baizik), Jaurlaritza, beste behin ere, zerbitzu publiko bat pribatizatze bidean ari da. Haurreskolak Partzuergoan izan ezik (baina hauek IMQrekin gauzatzen dira), hezkuntza ez unibertsitario osoan langileek urteak eta urteak daramatzate mediku azterketak egiteko aukera izan gabe, ez dagoelako hori gauzatzeko langile nahikorik.

Beraz, Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Sailari egoera honi lehenbailehen konponbidea jartzea eskatzen diogu beharrezkoak diren Lan Osasun arloko langileak kontratatuz. ■



### NAFARROAN ZER?

Nafarroan, Hezkuntza Publikoko langileen mediku azterketen zerbitzuarekin ez dago pribatizazioaren arazoa, eta beti bezala Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan egiten dira.

Foru erkidegoan dagoen arazoa da Nafarroako Gobernuak baliabide gutxi bideratzen dituela erakunde publiko honetara, honek zerbitzuaren kalitatean duen eraginarekin. Nafarroako Gobernu "Progresista" honek langile publiko gehiago kontratatu behar ditu (medikuak, erizainak, psikologoak, idazkariak...) ematen duen arreta hobetzeko, zerbitzuaren epeak murrizteko eta zerbitzua bera benetan eraginkorragoa izateko.

Zerbitzua publikoa izaten jarraitzea nahi dugu, baina gobernuak beharrezkoa den inbertsioa egitea ezinbestekoa da publikoa izateaz aparte, kalitatezkoa izateko. ■

# Zaintza bizimodu duin baterako oinarria!

Zaintza oinarrizko behar unibertsala da eta, egun, zaintza etxe barruan dago kokatua. Gero eta merkantilizatuagoa, feminizatuagoa eta arrazializatuagoa dago.

Zaintza lanetan dabilen langileak, gehienetan emakumeak eta migratzaileak dira, azken hauek maiz atzerritartasun legeak zeharkatzen ditu eta euren egoera prekarizatzen du. Lan aukera askorik ez daukatenez, legeak bertan geratzera behartzen ditu, haien ahotsak isilaraziz.

Gaur egun, sistemak duen zaintza plana ezkutukoa da eta hein handian baliogabea ere bai, genero, klase eta arraza arrakala garbia duena.

Zatoz!

**A30**

GREBA  
FEMI-  
NISTA



Mugimendu  
Feministarekin  
Bat

Gizarte sistemak plan bat behar du zaintzak bermatuta egon daitezen eta zaintzaileen bizi-baldintzak duinak izan daitezen, horregatik da guztiz premiazkoa gaia agenda politikoan egotea. Zaintza sistema publiko bat behar dugu, bitarteko ezberdinak erabiliz garatu beharko dena; publikoa izateak zaintzarako eskubi-dea bermatuko duelako. Honetarako unibertsala eta bideragarria izan behar du, merkantilizatu gabea. Horretaz gain, edozein politikatan era transbertsalean egon behar duen gaia da. Izan ere, zaintza zerbitzu eta estruktura konkretu eta garatuz gain, sistemaren antolaketak zuzenean eragiten baitio zaintza antolakuntzari.

Krisi honi aurrez aurre heltzeko Bizitzak Erdigunean mugimenduak ekimen ezberdinak abiatu ditu: 2021ean egindako oinarrizko txostenetik abiatuta Herri Akordio baten garapena, erakundeei eskaera zehatzak eta apelazio zuzena egin dizkie. Horren mugarri eta aldarri, azaroak 30ean deialdi garrantzitsu bat dago: greba feminista orokorra. Mugimendu feministak lideratuta gizarte osora iritsi nahi dugu benetan urgentea den gai honen garrantziaz jabetzeko eta estratu guztietatik pauso sendoak emateko. ■







# Udazken gorriari ortzadar kolorea

## Gori-gori dator urria, bero-bero udazkena

Hezkuntza Publikoko langileok urtearen bukaera aurretik borrokarako plaza asko ditugu. Bost greba egun ditugu aurrean: bi funtzio publiko osoan, bat hezkuntza publiko ez-unibertsitarioan, beste bat EHUen eta greba feminista orokorra. Publikotasunaren defentsa dugu nabarmen protesta hauen guztien hari. Zerbitzu publikoak bide eta tresna erangikorrak dira pribilegioek sortzen dituzten arrakalak orekatu ahal izateko. Horrexegatik, gure kolektiboaren ikuspuntutik publikoaren defentsa erabatekoa da, heterosexualitatearen erregimenak sortzen duen indarkeria kamustu asmoz. Greba hauek defendatzeko borrokan buru-belarri jarriko gara hortaz. Halaber, artikulua honen proposamena zera da: greba hauek LGTBIQ+ perspektibaz aztertzea, heterosexualitatearen erregimena oharkabean pasatu ez dadin funtzio publikoaren defentsan ari garen bitartean.

Zerbitzu publikoen defentsa da gure sindikatuen ikurra, tresna publikoek apaldu baitezakete jendarte zisheteropatriarkalak sortzen dituen bortizkerietako asko; esaterako, kolektiboko trans kideen langabezi tasa altua. Ezinbesteko publikotasunak baditu erronkak ordea: nola egin zahar-etxera dihoan adindua armairuan atzera sar ez dadin, egoitzako sistema publikoa heteroarauaren arabera antolatua badago? Nola egin osasungintza publikoko sexu-transmizioko infekzioen kontsultara joaten garenean eta gure sexu praktikak heteroprismatik epaitzen dituenen medikuak? Nola egin lan-hitzarmen heterosexualaren arabera, gure familia ez-normatiboko norbait hil zaigunean? Urri, azaro eta abenduan zehar deitu ditugun greba egun hauei eman diezaiegun ortzadar kolorea, publikoa bera transmaribibolloa izan dadin.

Jakin badakigu greba egun hauetan ere Euskal Eskola Publikoa dela gure aldarri nagusia. Transmaribibolloa izango den Euskal Eskola Publiko baten aldeko greba egingo dugu. Jakin badakigu eskola mota oro badela oro har botere egitura; pribilegioak irauarazteko gorputz soziala zapaltzea eta otzantzea helburu duena. Horren aurrean, onbidea topa dezakeen bakarria eta gizarte kohesiorantz egin dezakeen bakarria eskola publikoa da. Publikoak du giltza desoreka orekatzeko. Oreka bilatze horretan, Euskal Eskola Publikoari begirada transmaribibolloa sartzeko da gure eskakizuna. Hezkidetzaren proiektu errealek behar ditugu kredi-

tu nahikoarekin hornituta, bizikidetzan eta berdintasunean eragiteko eta horretarako ikastetxe guztietan egonkorra den pertsona aditua behar dugu; izan ere, lesbofobia, bifobia, transfobia eta homofobia borrokatzeko tresna aparta baita gure Euskal Eskola Publikoa. Halaber, onartezina da diru publikoz itundu nahi izatea, EAEko Hezkuntza Lege berriaren bidez, idea kristau translesbobihomofoboak dituzten ikastetxeak. Hau guzti hau jakinda, atera gaitezten denok kalera greba egun hauetan, sexu askapenerako espazioak sortuko dituen Euskal Eskola Publikoaren alde eta EHUren alde.

Greba feminista orokorrerako egunak lituzke arantza gutxien, harek jada hein batean nola-baiteko begirada interseksionala badakarrelako. Gure sindikatuko LGTBIQ+ jarduna ezin da ulertu transfeminismoaren markorik gabe. Hortaz, azaroak 30ean deituta dagoen greba gurea ere bada. Heteroarauatik kanpo familia ereduak antolatzen ditugunean, zaintzaren afera ezbaian geratzen den kontua izan ohi da. Ez baduzu haurrik, nork zainduko zaitu zahartzaroan? Koska bat gehiago estutuz gero, ez duzunez haurrik, zuk zainduko dituzu hortaz familiako besteak? LGTBIQ+ komunitatean hortaz zaintza sistemak badu zeresana. Queer komunitatea nork eta nola zainduko du? Hala, azaroan 30eko greba feminista honek zaintza erdigunean ipiniko du eta gure komunitateren errealitateaz aberastuko dugu borroka. ■

### LGTBIQ+ ikuspegia zizelkatuz, publikoaren defentsan tinko



## Tapia legeak eta makroproiektu pribatizatzaileek publikoaren gainbehera dakarte!

Ekologismoa defendatzen dugunon artean, erdiguneko gaia dugu datozen egunetan iragarritako greba dinamika, publikoa aldarri baitute. Bizitzitzen ari garen egoera salatzea da, eta enpresa pribatuen onspena eta makroproiektu izugarrien baliotzea egunerokoa da gurean.



Piaspe eta Azpeitia, Azkoitia, Zumarraga, Urretxu eta Ezkio-Itsaso artean kokatuko den Buruzai proiektu eolikoaren tramitazioek aurrera jarraitzen dute. Bolo-bolo dabil jendartean eolikoaren makroproiektuen afera, eta honek erlazio zuzena du Tapia legearekin: «Eusko Jaurlaritzak interes orokorreko zat jotzen duen edozein proiektu udalek edo kontzejuek esan dezaketenen gainetik egongo da».

Eolikoaren makroproiektua aurrera eramango duen enpresa norvegiarrak (Startkraft) 6/2022 Errege-Dekretua mahaigaineratu du eta horren arabera, «ingurumen azterketa egin gabe proiektuaren tramitazioarekin aurrera egiteko ahalmena bermatzen du (dekretuak)». Ez da egongo informazio publikorako eta herritarren parte hartzerako espaziorik. Halaber, Startkraft enpresak berak egindako ingurumen inpaktuaren azterketaren txostena, administrazioak soilik izango luke; eta hala beste inork ezingo luke proiektuaren eragina ebaluatu. Kontuak horrela, energiaren sozializazioa eta demokratizazioa eskatzen zuen multionazional honek salbuzpeneko lege hau ezinbestekotzat jotzen du.

Honek guztiak lur publikoaren eta ingurumenaren babeserako ezarri beharreko kontrol neurriak desagertarazten ditu, herri mugimendua zapuzten du, eta herritarren erabakitze-ko eskubidea isilarazten du. Horrela, inbertsio funtsen diruz dopatutako korporazio multinazionalen esku utziko da energia arazoaren kontrola. Hala, botere politikoek bultzatu nahi gaituzten menderatze-harreman horretara iritsita, dependentzia-ekonomikoan oinarritutako kolonialismo-egokiera berri batean kokatuko gintuzkete.

Zoratzekoa da bizi dugun krisi ekosozialaren aurrean, zein baldintzatan ari den planteatzen energia trantsizioa eta berriagarrien hedapena EAEn. Lotsagarria da hemengo alderdi politikoek enpresa pribatuei eta euren negozioei alfonbra gorri amaitezinak zabaltzeko aldartea. ■

Honenbestez, bide pribatizatzaileei aurre egiteko asmoz, datozen egunetan deitutako grebak babestera eta kaleak hartzera deitzen zaitugu!



## Su txikien itsasoa

Eremu ezberdinetan gabiltzan gizarte eragileak elkartu ginen irailaren 30ean Ozaetan, Su Txikien Itsasoa topaketan. Trantsizio ekosozialerako funtsezko ardatzak jorratu genituen.

Eraldaketa sustatzeko gizarte aktibazioa ezinbestekoa da, bestela elite politiko-ekonomikoek gidaturiko trantsizioz mozorroturiko aurreranzko ihesak itoko gaitu. Horregatik, ekimenaren helburua gizarte mugimendu ezberdinok dituzten esperientziak eta ikuspuntuak konpartitu, eta komunean dutena eta egin dezaketenaz eztabaidatzea izan da, gizartearen aktibazio hori elkarrekin eta elkarlanean eragiteko eta eraldaketa sozialaren aldeko itsaso bat bultzatzeko. Horregatik guztiagatik, trantsizio ekosozialean urratsak emateko zoru komuna eta elkarlan eta sinergietarako aukerak sustatzea ez da filosofia hutsa, ekintzarako proposamen bat da. Ditugun erronka amankomunei loturik, funtsezko elementu bezala zaintzarako eskubide unibertsalaren eta zaintzaileen eskubideen alde ekitea kokatzen dugu. Horregatik, bildutako gizarte mugimendu ezberdinok bat egiten dute Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitu duen Greba Feminista Orokorrekin, eta berau antolatzeko espazio ezberdinetan proaktiboki parte hartzeko konpromisoa hartu eta deialdia luzatu dugu. ■



# HL

Hitz eta Lapitz



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Ikasurte berri or!**

Aurrerago honetan ena, lan-baldintzak eta hezikuntzaren kalitatea defendatzen eta Euskal Estatu Publikoa hezikuntza-sistemaren aldatu izan dairen buruzkoan jarraituko dugul.

Irailaren 14ko eguna 2023-2024 ikasurterari



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Enakuntzarako edonon ageriko eskubidea dugul. Gora Jaiakibelt!**



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**77 Gaur goizean #Hitzazken** eskolako familia eta komunitateari babesa eman nahi izan dugun agindako manifestazioan.

Eusko Jaurlaritzari eta erregimen eskola garrantzian gatazkarri interbidea bilatzeko eskatzen diogu.



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**14-Mai berria den ikasurte honetan, #Hitzazkenaren ikaslebo publikoetako planifikazio farta eta utzikeria politikoa salatu nahi dugul.**

Etina, utzikeria edo apropos landutako estrategia? <#>



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**"Martxoan sartu zen Indarrean Espainiako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa. Orduko, EHUk irakaskuntza lana egiteko lanaldi partzialko kontrataku espainiar ditzkie erdikoetako eta 500 euroko soldataki".**

Egoera salatzeko mobilizazioak egin ditugu <#>



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**ADI**

**ELA, LAB, CC00, STELAS, SATSE, eta ESK sindikatuek** (ordezkariak sindikatuaren % 85k gora) urtarraren 25ean eta abenduaren 19an bi greba egun egingo ditugu EAEko sektore publikoko langile guztiak <#>



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Premia bereziki ikaslearen kopurua %60 handitu da azken hamarkadan** EAEn, baina ikasle-profesi asko murriztu dira. Horregatik, ez zale hezitzaile edo PTRik jartzen, eta hitzkeria egiteko behar du materiala eta kan-prozesua bultzatzen behar dugu erantzuteko <#>



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Datu ere dago: elkarbizitza eta konpromisoak ematen jarraitzea, salbuespen neurriekin ariak eta. Denok izan behar dugulako bidearen parte, salbuespena zateen utzi eta #GuztizBakarraGuztiarekin izateko delako helburua!**

[#SalbuespenNeurriakBakarraGuztiarekin](#)



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**FIADI**

**Urtarraren 26rako greba deltu dugul EAEko #HitzazkenPublikoan. Denak, urtarraren 25 eta abenduaren 19rako sektore publiko osorako egindako greba delakitan beste greba egun bat gehitu zale.**

[#HitzazkenPublikoan](#)



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**30eko greba orokorra** deituko mobilizazioetan izan gara Gaurkoan, Bibi, Donostia, Gasteiz eta Iruñean <#>

**Zaintza eskubide kolektiboaren alde** <#>



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Benetegi eragile sozial eta sindikatuek** gora ekartu ginen alzo Ozeetan, Garaioan Sotgiaguan, sustatu nahi dugun trantsizio ekolojikoerako proiektuak adosteko [#GoraTrantsizioa](#)



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Euskal Estatu Publikoa da hezikuntza arazo Zerbaitz Publiko beharrik. Denak eta Denontzat.**

**Mobilizazio** [#HitzazkenPublikoan](#) aste, eta [#HitzazkenPublikoan](#) honetaz kontrol [#HitzazkenPublikoan](#)

**Urtarrak 29**  
**12:30ean**  
**Donostiatik Bournemouth**



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Sindikatuak #Auzoak30eko greba feministak** erregistratu dugul Nafarroa eta EAEn

**Gizarte sistemak plan bat behar du zaintzak bermatzeko** egin behar eta zaintzaileen bizi-baldintzak duinak izan behar. Guretzat prentsiak de gela agenda politikoen egites.



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Gizarte Ekimeneko ikasleboak** berrituko: Lan hitzarmen berria adostea ahalbidetuko duen edukirik eskatu ditugu urtarraren 10eko manifestazioan. Edukirik izan ezan, urtarraren 17tik eta 19rako eta abenduak 11 eta 15 bitartean 8 greba egun egingo ditugu <#>

**GIZARTE EKIMENA**  
hitzarmen berri baten alde  
ELA-STELAS-CC00-LAB-UEI



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**11EHko irakasketa eta ikertzearen greba:** 11EHko irakasketa izan da parte hartze <#> Grebara deituta zauden irakasketa eta ikertzearen masiboki sostengatu dituz greba.

**EZTU** [#GuztizBakarra](#) [#HitzazkenPublikoan](#)



**STELAS sindikatua**  
#STELAS

**Palestina herrialde elkarbizitza eta babesa adierazteko mobilizazioetan** izan gara azken egunotan EAE eta Nafarroako hiriburuetan.

**Palestina gurea! Israel bikt!**





[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

### Araba

Manuel Iradier 40 • 01005 **Gasteiz**  
☎ 945 141 104 📠 945 144 302  
[araba@steilas.eu](mailto:araba@steilas.eu)

UPV/EHU Arabako Campusa  
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 **Gasteiz**  
☎ 945 013 397  
[steilas-araba@ehu.es](mailto:steilas-araba@ehu.es)

### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk. • 48013 **Bilbo**  
☎ 944 100 298 📠 944 101 360  
[bizkaia@steilas.eu](mailto:bizkaia@steilas.eu)

UPV/EHU Bizkaiko Campusa • 48940 **Leioa**  
Liburutegiko eraikina, 1. solairua  
☎ 946 012 434 ☎ 946 012 435  
[steilas-bizkaia@ehu.es](mailto:steilas-bizkaia@ehu.es)

### Gipuzkoa

Basotxiki 30-34, atz. • 20015 **Donostia**  
☎ 943 466 000 📠 943 453 627  
[gipuzkoa@steilas.eu](mailto:gipuzkoa@steilas.eu)

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa  
Ignacio M<sup>a</sup> Barriola eraikina  
Elhuyar Plaza 1 • 20018 **Donostia**  
☎ 943 018 436 ☎ 943 018 281  
📠 943 018 140  
[steilas-gipuzkoa@ehu.es](mailto:steilas-gipuzkoa@ehu.es)

### Nafarroa

Joaquin Beunza 4-6, behea • 31014 **Iruñea**  
☎ 948 212 355 📠 948 229 790  
[nafarroa@steilas.eu](mailto:nafarroa@steilas.eu)



Irakaskuntzako aldizkaria

